

9. Biltzar Nagusia Gasteiz, maiatzaren 25 eta 26an

LABek 9. Biltzar Nagusia gauzatuko du Gasteizko Europa jauregian, “**LAB 4.0 Gure Garaia**” lelopean. Biltzar Nagusian eztabaidagai izango ditugun bi ponentziak urtarrilaren 19an aurkeztu genituen hedabideen aurrean. Egun horretan hasiera eman genion prozesu kongresualari, eta, geroztik, eskualdez eskualde aurkezpenak eta eztabaidak egin ditugu, baita ekarpenak eta emendakinak jaso ere. Ponentzia politiko-sindikalean zein antolakuntza ponentzian jasotzen dira datozen bost urteetan LAB sindikatuaren ildo sindikala markatuko duten erronka eta erabaki nagusiak zeintzuk izango diren. Horrenbestez, LAB indarberrituta irtengo da biltzarretik, norabidea ondo zehaztuta.

[Hemen](#) topatuko duzue informazio osoa.